

## MANIFESTUA – Irakasleen Munduko Eguna, 2022ko urriak 5

**CMEk irakasleen eta hezkuntzako langileen funtsezko zeregina ospatzen du, hezkuntzarako eskubidea bermatzen duten neurrian, eta kooperazioari dagokionez, egungo hezkuntza-beharrak kontuan hartuta, hezkuntzaren arloan finantzaketa haztea aldarrikatzen du.**

Irakasleen Munduko Eguna dela eta, Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpainaren Espainiako Koalizioak **berriro adierazi nahi du irakasle, hezitzaile eta laguntza-langile guztienganako babesa eta elkartasuna**. Xede horrekin aldarrikatzen du langile horien zeregin garrantzitsua, gizakien kalitatezko eta bidezko hezkuntza inklusibo eta eraldatzailerako eskubidea errealitate bihurtze aldera.

Azpimarratu nahi dugu irakasleen eta hezkuntzako langileen egoera munduan. Gaur egungo hezkuntza-krisiaren testuinguruan, **premiatzkoa da gobernuek aurrerapausoa ematea**, nazioarteko kooperazioan hezkuntza oinarritzat jo dezaten.

Pandemiak argi utzi du irakasle-lanbidearen balio ordezkaezina, baina, aldi berean, lan-baldintza zailak ere bai. Gainera, nabarmen gelditu dira irakasleen **baldintzak oso desberdinak direla eta, maiz, erabat prekarioak**, batez ere hezkuntza-sistema ahulak dituzten herrialdeetan. Hala, mundu osoan kalitatezko hezkuntzara iristea mugatzen zuten aurretiazko krisiak larriagotu dira.

Irakasleak zenbait erronka garrantzitsu dituzte aurrez aurre, eta gobernuek erronka berdinei egin behar diete aurre. Funtsezko alderdietako bat mundu-mailan dagoen **irakasleen eskasia** da. Esaterako, 2030ean guztiontzat kalitatezko hezkuntza lortzeko mundu osoan 69 milioi irakasle gehiago behar direla kalkulatu da. Zailtasun bereziak daude Saharaz Hegoaldeko Afrikan. Bertan zenbatetsi denaren arabera, herrialdeen % 70ek baino gehiagok lehen hezkuntzan eta, nagusiki, bigarren hezkuntza irakasle gabezia du. Eskualde horretan bakarrik 15 milioi irakasle gehiago behar dira 2030ean hezkuntzari buruzko helburuetara iristeko.

Horrez gain, mundu-mailan **irakasleen artean genero-desoreka** garrantzitsuak daude. Emakume irakaslerik eza bereziki kezkarria da testuinguru zehatzetan, hala nola Afrikan edo Ekialde Ertainean, non emakume irakaslea izatea erabakigarria izan daitekeen neskak hezkuntza-sistemari atxikitzeko, beste alderdi batzuetarako erabakigarria izateaz gain, hala nola eskolan indarkeria gutxitzea edo higiene menstrualerako aukera hobek ematea. Beste testuinguru batzuetan, ordea, Latinoamerikan eta Kariben esaterako, irakasle-lanbidean emakume askok dihardu, gizonek aintzatespen eta ordainsari gehiago dituzten bestelako lanbideak hautatzen baitituzte.

Horren haritik, **munduan irakasle gehienek lan-baldintzak ez dira egokiak**. Irakasle-lanbideko sindikatu gehienek adierazitakoari jarraikiz, kezkatu daude ordainsariak baxuegiak izatearekin, lan-baldintzak okerrera egitearekin eta irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako laguntza-azpiegitura nahikoa ez izan arren, gobernuen inbertsioetarako lehentasuna ez izatearekin. Gainera, **irakasleei gutxitan kontsultatzen zaie edo nekez parte hartzen dute erabakien prozesuetan edo politiken formulazio-prozesuetan**.

Beste arazo handietako bat da ibilbidean zehar **kalitatezko prestakuntza eta etengabeko lanbide-garapena ez eskuratzea**. Irakasleen kalitateak arazo izaten jarraitzen du, batez ere behar adina langile kontratatzeke zailtasunak dituzten herrialdeetan. Hala, prestakuntzarik gabeko hezitzaileak kontratatzen dira, sarritan aldi baterako kontratuekin. Pandemiaren aurretik, esaterako, Saharaz Hegoaldeko Afrikako eskualdean 3tik irakasle batek ez zuen prestakuntza nahikorik; Asiaren Hegoaldean, berriz, 4 irakasletik 1ek.

Ikus dezakegun bezala, irakasleek munduan erronka asko dituzte eta, gainera, garrantzitsuak dira. Horregatik, CMEk **deia** egin nahi du **munduan hezkuntza eta irakasleen egoera hobetzeko**.

Esparru honetan nazioarteko erkidegoari eta, bereziki, Espainiako Gobernuari eskatzen diogu **hezkuntzaren arloan Espainiak gauzatzen duen kooperazioan finantzaketa gehitzeko eta errenta nazional gordinaren % 0,7 garapenerako laguntza ofizialera (GLO) bideratzeko lanean jarraitzeko**. Zenbateko horretatik % 20 hezkuntzara bideratu behar da eta GLOaren % 10 laguntza humanitariora. Laguntza humanitarioaren % 10 horretatik, berriz, % 10 larrialdietan behar den hezkuntzan erabiliko da. 2030ari begira, konpromisoak betetzeko urteko jomugun plana zehaztu behar da.

Era berean, hezkuntza-krisiaren aurrean, eskatzen dugu **nazioarteko finantza-arkitekturan eraldaketari buruz erabaki ausartak hartzeko**. Helburua da garapen bidean dauden herrialdeei



laguntzea hezkuntzan inbertsioak gehitu ahal izateko. Hezkuntzako aurrekontuetan gastu nagusia irakasleei nominak ordaintzea da, izan ere, % 90 baino gehiago partida horretarako da. Gobernuak NDFren murrizketak bortxatu behar dituzte, inbertsio publikoaren aldean lehentasuna ematen baitiote defizita kontrolatzeari. Hori kontraesanean dago aktore guztiek onartzen dutenarekin, hain zuzen ere, hezkuntzan inbertsio indartsua eginda bakarrik egingo dutela estatuek hazkuntza ekonomikoan aurrera epe ertainean eta luzean.

Illo horri jarraikiz, oinarrizkoa da premiaz jardutea eta garapen-bidean dauden herrialdeen **zorra arintzeko neurriak** babestea, oinarrizko zerbitzu publikoetan inbertitzea sustatzen duten neurriak barne, hala nola hezkuntzan inbertitzea sustatzen dutenak. Gainera, diru gehiago biltzeko eta oinarrizko gizarte-zerbitzuak (hezkuntza, esaterako) estali ahal izateko **erreforma fiskalen** esparruan herrialde bazkideek egiten dituzten ahaleginak babestu behar dira.

Hezkuntzaren arloari dagokionez, kooperazioko politiketan eta programetan Espainiako Gobernuak eta autonomia-erkidegoek **irakasleekin lotutako erronkei aurre egiteko ekintzak eta programak indartu behar dituzte**, hau da, irakasleen eskasiari, prestakuntza urriari, gaitasun digitalak bezalako garapen profesionaleko behar berriei eta lan-egoera nahiz -baldintzak hobetzeari buruzko erronkei aurre egitekoak. **Behar bezala prestatuta, kontratatuta eta ordainduta dauden irakasleen eta hezkuntza-langileen kopuru egokia bermatu** behar dute.

Larrialdiko testuinguruetarako, ezinbestekoa da irakasleek eta hezkuntza-langileek **haien jakintzagaiak irakasteko laguntza egokia** jasotzen dutela eta **behar psikosozial, sozial eta emozionalak aseta dituztela** bermatzea. Gauzak horrela, laguntzetara iristen direla ziurtatu behar da. Halaber, arriskuko egoeratan segurtasuna nahitaez bermatu behar da irakasleen bizitzak eta beren lan-baldintzak babesteko.

Gaur egun Espainia munduko hezkuntzan bere zeregina eta ekarpenak hobetzeko eta nazioartean hezkuntza arloko garrantzia berreskuratzeko agertoki politiko aipatzen dago. Nazioarteko kooperazio-sistema berritzeko prozesuan oso-osorik murgilduta eta 2022ko bigarren seihilekoan mugarri oso garrantzitsuekin —Espainiako Kooperazioaren VI. Plan Zuzentzailea, 2023ko Estatuko aurrekontu orokorrak eztabaidatu eta onestea, Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Kooperazioari buruzko Lege berria Kongresuan eztabaidatzea— gure herrialdeak konpromiso ausartak eta irmoak ezarri behar ditu, **hezkuntzaren arloan ELGAko eta EBko emaile konprometituenekin lerrokatzeko**. Gainera, hezkuntza-krisiari mundu-mailan erantzuteko baliabideak hazi behar ditu irakasleen eta hezkuntza-langileen arreta eta aintzatespena hobetuta, kalitatezko eta bidezko hezkuntza inklusibo eta eraldatzailearen eskubideak betetzeko berme-emaileak diren neurrian, inor atzean utzi gabe.